


ttipi-ttapa

1992.eko Maiatzak 7

85. zenbakia

dohain banatzen da



**LANPOSTU MURRIZKETA
LESAKAN SEGURUA DA**

SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi



INGELES IKASTAROA UZTAILAN

Bertze urtetan bezala, aurten ere,
ingeles ikastaroa uztailan
goizetan

APUNTATZEKO deitu 592006 Tfnora



VOLKSWAGEN - AUDI
ZERBITZU OFIZIALA



Sampi Aragón



Tfnoa: 45 03 54 DONEZTEBE



Tfnoa: 58 05 93 ELIZONDO

■ TAILERRAK: LEITZAKO BIDEAN (Doneztebe) ■

zer - non

4 AGENDA Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

7 HONTAZ ETA HARTAZ

8 IRAKURLEAK MINTZO

9/23 HERRIZ HERRI

Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarena, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...

24 ERREPORTAIA: "Zer gertatuko da Lesakako Laminaciones-ekin?", Bideragarritasun Planarekin ez dira gauzak argitu.

Aitor Arozena

26 ELKARRIZKETA: Martin Garde: "Kultura eta kirol aktibitateetarako diru partidak zuzentzea ez da zulora botatzea".

Joxemanuel Irigoien

28 KIROLAK: "Martxan dagoeneko XIII. Laxoa txapelketa" zortzi talderen partaidetzarekin.

30 MERKATU TTIKIA

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 5.100 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton Erkizia, Juana Mari, Olhain Elkartea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua....

Inprimategia: Gertu Kooperatiba Elkartea (Oñati)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061 OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe	450300
Lesaka.....	637428/637336
Leitza	510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun	453039
Gartzain	580451
Oronotz-Mugaire	592024
Ituren	450183
Sunbilla	450283
Goizueta	514067
Igantzi	637755
Arantza	634131
Bera.....	630929 / 630036
Etxalar.....	635105
Urdazubi.....	599130

ANBULATORIOAK

Irun	630264/621106
------------	---------------

OSPITALEAK

Irungo ospitalea	614600
Nafarroako ospitalea	102100
SSko urgentzi zerbitzua	246750
Virgen del Camino erresidentzia	109400
Gurutze Gorria.....	226404

ANBULANTZIAK

Oitz	450242/450342
------------	---------------

DYA

Lesaka (larrialdiak).....	(943) 464622
Doneztebe (larrialdiak).....	171717

FUNERARIA

Lesaka.....	637404
-------------	--------

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire	592044
-----------------------	--------

GARRAIOAK

Bidasotarra	630279
Baztanesa	580129
Leitzarari	515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo	580730
Lesaka	637154
Bera	630261

ABERIAK:

Iberduero	450335/450336
-----------------	---------------

Botikak

► **Maiatzaren 9-10ean**, Bera, Ituren eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Maiatzaren 16-17an**, Arantza, Narbar-te eta F. Iturralde (Elizondo).

Dantzaldiak

► **LESAKA**, maiatzaren 10ean JOXELU ANAIAK taldearekin.

► **LESAKA**, maiatzaren 17an EGAN eta trikitixa (6-8etara).

► **BERROETA**, maiatzaren 16an Gau-Pasa.

Deialdiak

► **LESAKA**, maiatzaren 8an, Euskara Batzordearen bilera.

► **IGANTZI**, maiatzaren 8an, Euskara Batzordearen bilera.

► **BERA**, maiatzaren 12an, Euskara Batzordearen bilera.

► **ARANTZA**, maiatzaren 14ean, Euskara Batzordearen bilera.

► **ETXALAR**, maiatzaren 20an, Euskara Batzordearen bilera.

► **IGANTZI**, maiatzaren 21ean, Bortz. Eusk. Mank.aren Aholkularitza Batzordearen bilera.

Erakusketak

► BERA

ARGAZKI ZAHARRAK

Kultur Etxean, maiatzaren 8tik 10era, 15tik 17ra eta 22tik 24ra, Donostiako Fonoteka, Kultura eta Berako Kultur Batzordeak antolatuta. 6,30etatik 9etara

► ELIZONDO

NAFARROAKO ARTISTA GAZTEAK

Maiatzaren 5etik 17ra, Arizkunenean, Naf. Gob.ko Hezkuntza eta Kultura sailak antolatua.

Bota bertsoa



Oihana ESKUDERO

(Goizuetako Bertso Eskola)

Gaia: Don Bixente apez
Neurria: Zortziko Haundia

Badijoanez gure apez
sentituko dugu hutsa
hemen emana du makinatan
behar dunari laguntza.
Goizuetarrak eskeini dugu
beretzat bertso ta dantza
oso merezik izan bait ditu
gure agur ta alabantza

Bihotz zabala ta pertson ona
baina badula akats bat
sermoia hasi ta ezin buka
han egon behar orduak
alde hortatik urriki ditut
hemendik Orreagakoak
orain haientzat zure bihotza
baita ere meza luzeak.

AGENDA

Zinemak

► LEITZA

Maiatzaren 8an, gaueko 10,30etan "El rey pescador".

Maiatzaren 10ean, 5etan "Gremlins II" eta 8etan "El rey pescador".

Maiatzaren 15ean, gaueko 10,30etan, "Delicatessen".

Maiatzaren 17an, 5etan "Regreso al futuro III" eta 8etan "Delicatessen".

Gastronomia

RAPE edo ITSAS-ZAPOA AMERIKAR ERARA

Osagaiak

4 lagunendako:

750 gr. itsaszapoa, basu bat oliba olio, 2 tomate kutxarada, tipula, baratzuria, piperrautsa, limoi axala, baxo erdi arrain salda, litro erdi ardo xuria eta 15 zl. cognac.



Stephane Renaud-ek emana
BEOLA Jatetxea - IBARDIN

Itsaszapoa ebaki eta puxkak irinetan rebozatu.

Kaxuela batean olio bero-tu. Arraina nahasi eta ondoren, 5 zl. cognacekin flameatu eta lehortu. Likidoa bertze kaxula batean paratu, ardo xuria, gelditzen den cognaca, tomate, espeziak, salda, baratzuria eta tipula puska tiikitan moztuak gehitu. Hau, 30 minutuz egosten paratu eta gero rape puxkak gehitu eta bertze 15 minutuz eduki.

Beroa serbitzatu.

Kontzertuak

► BERA

MUSIKA SINFONIKOA

Maiatzaren 12an, arratsaldeko 8etan, Kultur Etxean, Javier Perez de Azpeitia pianista beratarren eta Donostiako Kontserbatorioko orkestaren saioa, Berako Udak Kultur Batzordeak antolatutik.

► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilo-koa): 7.600 pza. **Zerrigizena** (95-100): 177 pza/kilo **Zerramak**: 105 -125 pza./kilo bizirik.

► BEHIKIA

•Aretze gizenak:

Idixkoak: Pza/kg. Kanal Extra.....530
1.koa.....490
2.koa.....440

Urruxak: Pza/Kg. Kanal Extra.....545

1.koa.....505

2.koa.....455

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizenak: 320 Pza./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pza./Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 8.000 eta idixkoak 18.000 - 19.000Pza.

Mestizoak: urruxak 26.000 eta idixkoak 37.000 pza.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa

Baserriko feria



MALDAERREKA S.A.
«La Suiza»

Aseguro
mota
guziak

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

❖ Zure ingurua klase guzitako in-sektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo-z garbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz!

Tfnoa: (948) 63 01 55

- BERA



Europako lehena
ostalaritzarako
garbiketa produktuetan

Tfnoa: (948) 63 01 55 **BERA**

BERA
DESINFECCIONES

AGENDA

W 11 galdera labur



Bintxo Hierro
Berako postaria

- **Lanean, paketeak ala kartak?** Pake-teak.
- **Jefea ala langilea?** Langileak denak.
- **Mendia ala hondartza?** Neguan mendia, udan hondartza.
- **Poteatzeko, Bera ala Lesaka?** Beran hasi eta Lesakan akabatu.
- **Ardoa ala zerbeza?** Ardo gorri ona bakarrik.
- **Liburu on bat ala pelikula on bat?** Biak.
- **Beran, liburutegia ala futbol zelaia?** Liburutegia.
- **Idazlerik gustokoena?** Jack London.
- **Irakurri ala idatzi?** Idatzi
- **Poesia ala nobela?** Poesia laburrak.
- **Kultura ala inkultura?** Inkultura aunitz dago, debaterik ez dago. Bakarrik bo-toak eman borregoak bezala.

W Zinema



► **La doble vida de Veronica**
Krzysztof Kieslowski (Frantzia-Polonia 91)

Kieslowski zinema zuzendari poloniarra eza-gutzeroa eman zen duela bizpahiru urte alde hontako Europan, batez ere festibaletan; 10 erdimetrai bi-tartez. Hau da, hamar filma des-berdinak baina nolabait lotuak. Dekalog-1, De-kalog-2 eta ho-rrela hamar arte. Konparatu gene-zake kristauen hamar manda-menduen eragi-nekin, moral li-bre batean, gaur-kotuak eta Var-soviako subur-bioetan bizi diren jende ezberdinen



Harrigarria izan da Irene Jacob neska frantziarraren lana eta Kieslowski zuzendaria hurrengo filmeetako gogoan eduki behar

egoera pertsona-lak batez ere.

"La doble vida de Veronica" Frantziak pro-duzitu du zuzen-dari honen balioa ikusiz eta horri esker ikus de-zakegu pantaile-tan bi emakume ezezagunen bizi paretsuak eta biek itxuraz ere

berdin berdinak. Bat frantziarra eta poloniarra bertzea. Fran-tziarra Varsovia-ra oporretara joan eta bere doblea ikusi ondoren segitu egiten dio gordeka eta ku-riositatez kontu-ratzen da bere mugimendu eta bizi berdina egi-

ten duela bertze gizarte batean.

Mingain gaiz-toek Dekalog-11 ere deitu diote, nahiz eta ikuste-ko haundirik ez izan.

Cracovia eta Pariseko giroetan mugitzen dira pertsonaiak.

MARIANO

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA



LIBURU BILDUMEN BANATZAILEA
IKASTOLA, ESKOLA, ELKARTE ETA
KULTUR ETXEETAKO
LIBURUTEGIAK OSATZEKO
BEHAR DIREN BILDUMAK

AMETS LIBURUAK

63 12 67 - BERA

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak


ITUREN - Tfnoa: 45 04 91



**EUSKALDUNA
JATETXEA**

Tfnoa.: 63 03 92
BERA

BAZTANDARREN BILTZARRA 91



Baztandarren Biltzarreko kartel lehiaketarako epea zabaldu da. Kartelak 50x70 zmtakoak izan beharko dute eta derrigorrez "Nafarroa Euskalerrria" Baztandarren Biltzarra 92 eta Elizondon uztailaren 19an testua txertatua izan beharko dute. Lanak, B.B. elkarteak, posta kutxa 22, 31700 - Elizondo helbidera igorriko dira hilaren 25a baino lehen.



KARMELE

Nafarroaren Eguna ospatu zen apirilaren 26an Baigorri. Urtero bezala, urte honetako ekitaldia ere oso arrakastatsua suertatu zen eta milaka lagun bildu ziren Baigorriko karriketan Basaizea Kultur Elkarteak antolatutako ekitaldi ezberdinetan..

Bidasoaldeko alkateak Mendi kontseilariarekin bildu ziren

1993a bitarte 432 milioi inbertituko dira



Perez Lapazarán, Nekazaritza, abeltzantza eta mendietako kontseilaria apirilaren 25ean bildu zen Etxalarren Bortzirriak, Elgorriaga eta NARBARTeko kontzejuko alkateekin bertako mendietan dauden arazoei irtenbidea eman asmoz. Honela, 89an suak erretako mendietan 651 milioitako inbertsioa izanen da 1991tik 93ra bitartean. Hauetatik, iazko urte bukaeran 210 milioi gastatuak ziren

dagoeneko. Epe berean, Baztan, Malerreka, Berroaran, Bortzirriak eta Aranoko mendietarako 432'6 milioi inbertituko dira, Nafarroako mendialdearen garapenerako plangintzaren barnean.

Honetaz gain, prozesionariak, mendian ibiltzen diren ahuntz eta betizuak sortzen dituzten kalteetatik eta mendian moto eta kotxeen zirkulazioak sortzen dituzten arazoetatik aritu ziren.

INFORMAZIOA:

- ✎ Nominak
- ✎ Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✎ Enpresa berrien sortzea
- ✎ Diru-laguntzak
- ✎ Errenta Deklarazioak
- ✎ Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non:** MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



PATXIK TOMASERI

Nere kontesta egin nuen ustez bukatzeko, baina ez da bukatzen gizon honekin. Berritoki la-sai erraten dit 61 mi-nutotan egin nuela.

Gauza baldin ba haiz egizak, edo bertzela utzizak. Baita ere erraten duk nere abildadeari baino

beldur gehiago duke-la tranpari, eta nik Tomas, ez dit beldurrik hire tranpari eta gutxiago hiri Tomas, eta badakik sobera ongi edo bertzela ha-tor neregana. Azke-nean ikusten dit hiri kaso egitea denbora galtzea dela, eta horregatik, hemendik aurrera hire kontes-tak belarri batetik

sartu eta bertzetik atera egingen zaizkit.



Patxi

Oharra

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro bai-no luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi

duenaren izena, tele-fonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, erredakzio-ak bere esku izanen du horretarako es-kubidea.

Beatriz Apaindegia

Espezializatutako zentru akreditatua

Larruazalaren garbiketa, aurpegi eta gorputz tratamenduak, depilazioak, masaiak, sauna eta solarium.

Zatoz eta "Importancia de tu imagen" liburua oparituko dizugu

Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO



BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA JAKINARAZTEN DA

1.992ko Maiatzaren lehenetik aurrera, beiraki edo krista-lezko ontziak beste zaborratik bereiz biltzen hasiko dela..

Bizilagun guztien onerako delakoan gaude eta horregatik erabiltzaileen laguntza eskatzen zaizue horretarako jarriak dauden kontenedoreak erabiliz.

Bortzirietan, 1992ko Apirilaren 22an.

MOLINERO PINTURAK



Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen araberako prezioetan.

25 kg. pintura erosteagatik kamiseta bat oparizat

Eztegara 19 - 63 02 40 - BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

Udal-aurrekontua onartu da definitiboki

Aurtengoan 393 milioi ingurukoa izanen da

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Apirilaren 27ko Udal-Batzarrean onartu ziren definitiboki Udal-aurrekontuak. Guzira 392.855.329 pezeta aurrikusi dira urte honetarako eta inbertsio errealak bil-tzen dituen kapitulua izanen da haundiena.

1992rako aurrikusitako inbertsioak
Kapitulu honek bil-tzen dituen 192.508.008

pezetak, honako atal haue-tan banatuko dira bertzeak bertze: zatirik haundiena, Polikiroldegia eta Futbol zelaia eramanen dute, eta kirol azpiegituraz gain, mataderia egokitzea, karrikak moldatzea, sanea-mendu sarean lan zenbait burutzea, Zalain auzoko parkea, Udal zerbitzuen informatizazioa eta men-di-guardentzat irrati-en-laze eroatea pentsatua dago.



1992an egin asmo diren inbertsio eta obren artean, 192,5 milioi pezeta sartzea onartu da aurrekontuan.

Artiboa

Mataderia mantendu nahi

Momentuz Eztegarra karrikan martxan dagoen hiltegi edo mataderiak martxan segitu ahal izateko, Europako Ekonomia Elkartetik hainbat moldaketa egitera behartzen dute. Halere, koste baju baten truk oraingo mataderia egokitzeko aukera zabaldu zuten Sanidadekoek eta bide honetara biltzeko

eskaria sartzea erabaki zuen Berako Udalbatzak.

Musika

Kontserbatorioa

Orainarte Musika Eskola zena aurrerantzean Kontserbatorioa izateko bete behar diren baldintzak onartzea erabaki du Udalak.

Baldintza horien artean, Berari dagokion zatian diruz osoki sustengatzea dago bertzeak bertze.

W ttipi-flash

□ **Lurralde** Antolaketaren Foru Legea aldatzeko Nafarroako Gobernuak Parlamentuan aurkeztua duen Lege Proiektuaren kontra agertu da Udalak. Proiektu hori aintzineratzen bada, Udalek orainarte dituzten hainbat kompetentzia galduko dituzte.

□ **Bortzirietatik** Nafarroako Unibertsitate Publikora ikastera joan nahi duten ikasleek joan etorria egiteko autobus zerbitzurik ez dutela eta Bortzirietako Guraso Elkarrekin Udalarik zuzendutako kejarekin bat egin du Udalak.

□ **"Nekazaritza Erreka-Bidasoan.** Egungo egoera eta perspektibak" izenburuarekin, mahai-ingurua antolatu du HBk maiatzaren 18rako arratsaldeko 7,30etan Kultur Etxean.



KATTU OSTATUA JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua



Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 **LESAKA**

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 **BERA**

LESAKA


«Andra Mari» asiloko langileak Udalarekin haserre

Beraien lanpostua mantentzeko eskubidea ere eskatzen dute idatzi batean

AITOR AROZENA

«Andra Mari» erresistentziaren langileek beraien protesta azaldu diote Udolari asiloko estatutoak idazterakoan ez kontsultatuak izateagatik. Langileek ez dute onartzen udalbatzak onetsitakoa, beraien lanpostua mantentzeko eskubidea eskatuz eta Udalarri lanpostua finkoa izan dedila exijituz. Asiloko langileek beraien sorpresa erakutsi dute *«Herriko Etxeko zinegoziek Laminacionesen fabrika lanpostuak mantentzea eskatuz egiten diren manifestazioetan buru bezala agertzen direla, eta gero, asiloko langileek beraien eskubideei eta lanpostu bati uko egitea nahi dutela»* ikusterakoan.

Langileen idatzi hau ez zen onartua izan, PNVren aurkako 6 botoekin, HBren 3 aldekoekin eta EAren 2 abstentzioaz.



Albisturetik Osasun zentzora doaien bidea moldatu dute azkenik. Urte bat baino gehiago da Osasun zentrotik hau egitea eskatu zutela.

San Ferminetako...

programaren azal eta kartel lehiaketarako lanak aurkezteko epea hilaren 10ean bukatuko da. Lanetan derrigorrez, «Lesaka, 1992.eko San Ferminak» paratu beharko du. Azalen neurria, 25x20 zm da osotara, 2'5 zm.tako ertza margotua ingurua eta irudia barrenean. Kartelak berriz, 50x40 zm. izanen ditu osotara, 1'5 zm.tako

ertza utziz.

Partehartzaileak Lesakan jaioak edota errolatuak izan behar dira. Sarietako dagokienez, azaletan, lehenak 35.000 pza eramanen ditu eta 25.000 pza bigarrenak. Lehen saria aintzineko azalean joanen da eta bigarrena gibeletan. Karteletan, lehen sariak 35.000 pza izanen ditu eta argitaratuko da eta 15.000 pza bigarrenak.

ttipi-flash

□ **Bertso-afaria** izanen da maiatzaren 15ean arratsko 9,30etan Koxkonta Erretegian Lizaso eta Amuriza bertsolariekin. Txartelak Koxkontan.

□ **Musika** eskolak bulztatu eta hauek udalaren jabetza izatea eskatzen zuen idatzia onartu zuen ahobatez Udalak.

□ **AHVren** buruaren desagerpena eta Bidasoa bailaran izanen dituen ondorio eta ezarketak aztertzeko hitzaldia izanen da Arrano elkartearen hilaren 13an arratsaldeko 7,30etan.

□ **San Fermin** elkar-teak maiatzaren 22an Pilarika bisitatzekeo deialdia zabaltzen du. Hilaren 1ean Fraingo martxa erregulatua ere egin zuten.

□ **Argazki** ikastaro berri bat egingen dute Matxinbeltzenez hilaren 5etik 26ra bitarte.

XATURETXEA
FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

EROSLE


Tfnoa: 63 72 64 - LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago



★ **KIXKUR** ★
ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA



GOIZUETA
KIROLAK

Kirolak
Mendirako artikuluak

Beheko Plaza 10 LESAKA

Perez Lapazaran kontseilariarekin bilera

Herriko Etxean, Bortziriak eta Berroarango Udal agintariak bildu ziren berekin

PELLO APEZETXEA

Bilera horretan, Nekaritza, Abeltzantza eta Mendietako kontseilariaren Jose Cruz Perez Lapazaranek erran zuenez, 1993a bitartean 432,6 milioi inbertituko ditu guzira Nafarroako Gobernuak inguruotako herrietan.

Etxalarren inbertitutakoa 89ko suteen ondorioz, hiru urteotan 55,7 milioi inbertituko dira guzira.

Honekin batera, onartua dago baita bertze 28 milioi inbertitzea Oihantzantza proiektua betetzeko, zerrakurak egiteko eta bazkalekuak prestatzeko.



Prozesionariak eta mendi-motoendako ordenantzetaz ere solastu ziren

Herriko Etxean langile berria

Ramoni Olaziregi, Beratarra, Bortziriako Zabor Mankomunitaterako lau ordu eta Zerbitzu Sozialerako Mankomunitaterako bertze lau ordu egi-

nen dituen. Bera izan da puntu gehien eskuratu duena burutu diren azterketa edo examinetan.

ETB hobe ikusten da

Bolada batez nahiko gaizki ikusiz ibili gara Euskal Telebistaren lehen

katea. Orain maiz eskeintzen ditiguzten pilota partiduetan, errate baterako, ezin ginen pilotarik bazela ere ohartu. Hondatuta zegoen aparailuren bat aldatu du Udalak, 80.000 pezetakosta dena. Euskal Telebistak berak errepikagailu egokia Frain mendian paratuko duelako zurrumurruak badira, Bortziriatarako balioko lukeena; momentuz, orde, zurrumurruak bertzerik ez dira.

□ **Gazteluko** Gabriel da Larraburua Zahar etxera joan zaigun hirugarren bizilaguna.

□ **Udalak** baimena eman dio Lorpen-i galtzerdi egitearen akabilla Martinean burutzeko.

ARRATZUBI ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - **LESAKA**

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

ALBATETXEA JATETXEA

Alicia eta Carmenek zuzendua

Antoiu 26 - **LESAKA**

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - **LESAKA**

KOXXKONTA



Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - **LESAKA**

Sagardotegia Erretegia

Ezkontza,
bataio, bileratarako
leku egokia
(200 pertsona)

BOAN TAILERRA



CITROEN Banatzailea

KOTXE BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - **BERA**

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 **BERA**

IGANTZI

Piszina eta Zahar Etxeko proiektuak egiten hasiak

Pilotalekuari buruz ere hitz ederrak hartu dira Nafarroako Gobernutik

OSKAR TXOPERENA

Ekin diote azkenean Udal arkitektoek piszina eta zahar etxea izanen den proiektuari. Bai kirol kontseilariari eta baita Ongizate Sozialekoari egindako bisitetan, baiezkoa eman zaio udaletik agertutako asmoei. Terrenoa aspalditxotik prest dago eta baikorrenek heldu den urtean piszinako uretan freskatu ahal izanen dugula diote. Pilotalekuari buruz ere hitz ezin hobeak jaso dira Nafarroako Gobernutik. Espero dezagun gero gauzatzea.

Elizako erlojua moldatzeko asmoa

Bertze aldi batean aipa-



Elizaren moldatze lanak kanpadorreko erlojua automatizatzeko aprobetxatuko da.

tu genuen bezala, aintzine-
ra segitzen dute elizako
moldatze lanak. Udalak ere
zerbait eman nahi izan du
lan hauek borobildu na-
hian. Berari dagokionez,
beraz, erlojuaren kuerda

egunero eskuz eman beha-
rean, aurrerantzean kuer-
da automatikoa paratuko
dio. Aspaldidanik zegoen
aldaketa hori egiteko, bai-
na dirudienez, aurtan gau-
zatuko da.

Beira edo kristalaren bilketa

Zabor Mankomunitateak zabalduetako ohar batek dioenez, maiatzaren lehenetik martxan dago bilketa hori. Beraz, herri-
tar guziei beiraki eta kristalezko ontziak horretarako dauden zaborrontzietara botatzea eskatzen zaie.

Udal erabakiak:

☐ **Mediku** kontsultako gastuak Nafarroako Gobernuak ordaintzeko eskatzea.

☐ **Mendiko** arduradunei prozesionariaren aurka bertze zenbait fumigazio egitea eskatzea.

☐ **Unibertsitate** Publikorako garraioa Bortzietara ere zabaltzeko eskatzea.

EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko
toki egokia



Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA



HAUR JANTZIAK
OINETAKOAK
ETXERAKO ZAPATILAK
San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA



KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

BERA



* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa

* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91



S. Semper

Nekazal Tresneria

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN
BERA, 631238 Tfnoan, Agerra Industriadan

SAROB
okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Nafarroako Txapela ekarri zuten gaztetxoek Irurtzundik

Sokatira eta proba konbinatuan, bietan garaile atera ziren

JON LARRETKEA

Irurtzungo finalean Herri Kirol taldeko infantilak garaile atera ziren, beuren etsai nagusiei, Sunbildarrei, 13 segundutako alde ateriz. Final borrokatua izan zen eta Arantzarrak lan polita egin zuten. Izan ere, hasiera txarra izanta ere, azkene-koak baitziren lehen seriearen bukaeran, buelta ematea lortu zuten, poliki poliki denak giblean utziz. Ttikiek lekzio ederra eman dute, ea helduak ikasle onak suertatzen diren.

Etxebizitza premiei buruzko inkestak...

erantzun eskaxa izan du. Duela bi hilabete inkesta zabaldu zuen Uda-



Arantzako gazte-
txoek 13 segundu-
tako diferentzia
atera zieten
Sunbilla-koei.

lak herrian zegoen premia jakiteko eta beharra izanez gero, laguntza ofizialeko etxebizitzak altxatzeko. Momentuz 5 eskari bertze-rik ez dira bildu eta gehia- gorik ez badago ezin izanen da deus egin. Norbait du-

datan badabil mugi dadila.

Bertizko...

Parke Naturalaren aprobetxamendu turistikoa bideratzeko Kontsorzio bat osatzeari baietza eman zion Udalak. Jakina denez Na- farroako Gobernuak ez du

Bertizkoa gestionatzen se- gitu nahi eta honen gestioa inguruko udalei eskeini zien. Osatzen ari den kont- sortzioak, horren gestioa eta inguruko herrietan tu- rismoa indartzea izanen luke helburutzat.

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630529 - BERA

ETXEGARAI

BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak
Antena kolektiiboak eta
banakakoak
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

BELARRA Kafetegia

Plater konbinatuak

Amezti 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE



BODA KANPAINA 1992

- * LORE NATURALAZ EGINDAKO ADORNOAK, ESKULA- NA DOHAINIK ETA LANDARE NATURALEN ALOKATZEA ELIZETARAKO PREZIO HAGITZ INTERESGARRIETAN.
- * LOREAK ETXERA ERAMATEN DIZKIZUGU.
- * LORE IDORREZ EGINDAKO ZENTROEN ALOKAIRU ETA SALMENTA, JATETXE ELA ELIZEI.
- * LORE IDORREZ EGINDAKO DETAILEAK, SASKITXOAK PERFUMEAREKIN, ETAB... BODETARAKO.
- * AUREKONTUAK ESKATU, KONPROMISORIK GABE.

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42 - LESKA

SARA

Maiatzaren 8an Dantzari Ttiki eguna


Iparaldeko eskualde guzietako haurrak bilduko dira Saran

OLHAIN ELKARTEA

Aurten, Iparaldeko eskualde guzietako haurrak bilduko dira Saran Euskal Dantzarien Biltzarrek, Zazpiak Bat herriko dantza elkartearekin batera antolatutako egunean. Heldu den ortziralean ospatuko dira ekitaldiak errebote berrian (Omordia aldean).

Herri Urrats gaua

Maiatzaren 9an dugu Herri Urrats gaua. Hau iraganen da hirugarren aldikotz Saran eta aurtengo egitaraua hauxe dugu: arratsaldeko 6etarik goiti, Zazpiak Bat dantza taldea, Bertsulariak, Trikitilariak, Txalaparta, Tturruttak taldea eta HERTZAINAK eta Ruper ORDORIKA.



Oroitarazi, Xalbador Ikastegiaren alde egiten

direla ekitaldi hauek. Antolatzaileak Olhain Elkartea, Gaztetxea eta Xalbador Ikastegiko Herri Urrats taldea dira. Sartzea 30 libera edo 500 pezetatakoa izanen da. Agian urte oroz bezalako erre-kista ukanen du besta hunek eta zuen guzien parte hartzearekin lortuko dugu Euskararen alde urrats baten egitea.

**Kiroldegia-
ren
estrena
ginuen...**

Bazko biharamunean ospatu da kirol eta ekital-

dietarako egin den gune eder eta paregabearen estrena. Karia hortarat bertan iragan da Syndicat d'Initiative taldeak antolatutako Euskal Idazleen Biltzarra. Aroa lagun, bizi-ki ongi pasatu dira estrenaren karietarat antolatu ekitaldiak. Bainan badakigu Saran ez direla gauzak behin ere erdizka egiten. Hor dira lekuko lezeen antolaketak, Ospitale ohiaren bermoldatzea eta bertze. Bainan gure eskerrik beroenak merezi ditu obra hunek eta Biltzarren karietarat hunen atek idekitzeak Euskararen aldeko omenaldi bat iduritzen zaiku.

Jarrai bide hortarik.

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

IRURIBIETA

OSTATU

JATETXEA

Iruri-Iruñea Bidea, 61,5 Kma. , Tfnoa:450399 - SUNBILLA



**AMEZTIA
Jatetxea**

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf: 450028 - DONEZTEBE



**SANTAMARIA
Jatetxea**

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

Trikitolari Bestaren lehen edizioa arrakastatsu

Ekitaldira 500en bat lagun bildu ziren

IOSUNE, IXABEL eta PILAR

Apirilaren 26an burutu zen giro on eta alaiarekin I. Trikitilari Besta. Aurtengo antolatu deneko lehen-dabiziko aldia bada ere 500 pertsona inguru bildu ziren ekitaldira. Bertan dantzariak, 7 trikitilari bikotek eta trikitilari talde osoak ere bere saioa erakutsi zuten. Herri Kirol erakusketa modura, sokatiralariak ere izan ziren; Sunbilla, Bera eta Ultzamako taldeak. Sunbildarrak suertatu ziren irabazle eta ondotik Bera-tarrak eta Ultzamarrak.



Trikitolariak, dantzariak eta herri kirolak protagonista ekitaldian

Larretxea eta Olasagasti aizkolariek ere saioa eskeini zuten. Eguerdian Elor Txuri Jatetxean jatetxean

200 bazkalkide bildu ziren eta bestari amaiera emateko, kankak eta trikitilari talde osoaren azken saioa.

Arpana Txapelketa...

apirilaren 19an ospatu zen Beran. Sunbildarren partehartzeari dagokionez, Juan Indakoetxea eta Xanti Indak 3. postua lortu zuten eta Juana Baztarrika eta Dolores Larralde, berriro ere, 2. txapela ekarri zuten.

Bertzalde, Irurtzunen jokatu ziren Infantil eta Kadete mailan Nafarroako Proba konbinatua eta Sokatiraren finala. Proba konbinatuan bi taldeek 3. postua lortu zuten eta sokatiran berriz 2. postua. Zorionak eta segi horrela.

BERTIZARANA

Bizilagun talde batek "Udal-irregularitateak" salatu ditu

Udalean "interes pribatuez" gidatuak ibiltzea leporatuz

JOXEMANUEL

"Azkenaldiotan ikusitako hainbat udal-irregularitate eta azken Udal Batzarra, apirilaren 18an, legeak dioen bezala publikoki iragarri gabe egitea" izan da bizilagun hauei prentsaurrekoa ematera bultzatu diena. Erran zuten, honekin, "herritarren arteko elkarbizitza bera ere gaiztotzen ari duen giroaren zergatia" argitu nahi dute. Bizilagun hauek diotenez, "komunalarekin dauden interes pribatuak

izan dira udal-kideak azkeneko hauteskundetara aurkezteko izan duten motibazioa". Gogoratu behar da, Bertizaranako Udala 7 kontzejalez osatua dagoela: 4 Independiente eta EAko hiru. Geroztik, "herri mailako bertze gaiak ere gaiztotzen joan dira. Ana Fraukaren izena zikintzea izan da hasieratik bilatu duten helburuetatik bat" salatzen dute segidan. "Ana bajarekin dagoen bitartean, alkateak, ordezeko sekretaria kontrata-

tu du eta bajarengatik Seguritate Sozialetik Udale-ra Anaren soldataren %75a bidaltzen badute ere, berak ez ditu soldata horiek erregulariki kobratzen" diote bizilagunek "bitartean ordezeko sekretariari titularra den Anari baino soldata haundiagoa pagatzen ari zaiolarik".

Bertzalde, bizilagun hauek Narbarteke Kontzejari Batzarra egitea eskatu diote informazioa jendeari zabaltzeko eta aldi berean "Udalbatzak egiten



ari dituen lege-hausteen aintzinean" Nafarroako Gobernuak egokiak diren neurriak ere hartzea eskatzeko aprobeixatu dute.

DONEZTEBE

Oteiza auzorako bidea, hasieran uste baino garestiago

Proiektuaren hasierako 12,1 milioiak, azkenan 21,1 milioitara ailegatu dira

TXEMA ALDABE

Hain desfase nabarmenaren arrazoia (%73,10a garestitzea), hasieran pentsatuak baino gauza gehiago egin izatean omen dago. Bide zabalagoa egin da, harrizko paretak eta tuberiak sartu dira, eta guzi horrek nabarmenki garestitu egin du obraren azkenko kontua. Dena dela, azkeneko udalbatzarrean onartu egin zen lan hauen azken zertifikazioa.

Zaborrak erretzeko...

Beintza-Labaien den da



Perez Lapazaren Kontseilariak Norfres lantegia bisitatu zuen apirilaren 24ean zonaldera egindako bidaian.

goen erauskailu edo intzineradoreak hondatu zela eta, 789.260 pzta. izanen da

Donezteko Udalari proportzionalki ordaintzera egokituko zaiona.

W ttipi-flash

□ **Jubilatu**en Egoitza antolatzeko, Nafarroako Gobernua eta Doneztebe-ko Udala akordio batetara ailegatu dira. Horren arabera, Nafarroako Gobernuak koste osoaren %50a ordainduko du.

Aipatu azkenik, proiektuaren arabera Jubilatuen Egoitza antolatzea guzira 22.343.991 pzta. kostatuko dela.

□ **Ameztia** zeharkalekuaren eskuinaldean apartatu ahal izateko baimena Polizia Foralari eskatzea erabaki du Udalak.

Artxibo Argazkia

DONAMARIA


Joan den asteburuan pala txapelketaren finala jokatu zen

Larunbatean afaria antolatu zen Euzkitze eta Telleria bertsolariekin

SARA eta NATALIA

Hau idazterakoan finalerako partidua jokatu gabe bazegoen ere, bi kategorietan honako bikote hauek arituko ziren: 1. ko kategorian Patxi eta Onofre, Karlos eta Lazaroren kontra; 2. kategorian, berriz, David eta Jose M^a, Balentin eta Batistaren kontra.

Guzira 14 bikoteek jokatu dute bi kategorien artean. Bertzalde, okasioa afari bat antolatzeke ere aprobeztatu zen.



W ttipi-flash

□ **Bestak** antolatzeko, gazteak eta Herriko Etxearen artean bilera egin zen. Horren arabera, aurtengo 15etik 18ra ospatuko dira. Presupuestoa ttikitzeke, larunbat eta igandean talde bat ekarriko da eta bertze egunetan akordeolaria. Gehiago ere izanen da.



Estilo propioz egindako arropak

San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE

ASKIN OSTATUA

Bokadillo eta Plater konbinatuak

Elizagibela, Tfnoa: 45 00 52 - DONEZTEBE

Jende aunitz ibili da Aste Sainduan herrian barna

Bertzalde, «Kisu Labe» ostatua apirilaren 28an inauguratu zen

MARGARI eta KORO


Eguraldi txarra izanik ere jende ugari ikusi dugu Aste Sainduko oporretan. Milaka jende pastu dire herrian barna lezeak ikusteko aitzakiarekin. Bertze urtetan, beharbada camping gehiago ikusi dire, aurtan berriz, jendea alde batetik bertzera bueltaka ibiltzen zen.

Beti ere, ostatu eta jattetxeak kontent dire egin duten lanarekin.

Ostatu berria, berriz martxan

Gan den urtean aipatu ginuen ostatu berri baten irekitzea, «Kisu Labe» izenekoa, hain zuzen.

Ostatu hau iazko ekainako gaupasarako ireki zen eta geroztik ia urte bat etsia egon da burokrazia afera dela eta. Azkenean, arazo guztiak menperatu ondoren Apirilaren 28an inauguratu zen eta geroztik zabalik dugu.



Kisu Labe ostatua apirilaren 28an paratu zuten berriz ere martxan

ZUBIETA

JUAINAS

Nola harrapatu zaituzte aurtan kukuak?

Eliza eta Udaletxea berrituak dauzkagu eta aski dotore gelditu direla biak. Eta biak estrenatuak izan badira ere, azken detaileen falta.

Udako prestakuntza horretan tradizionala bihurtu den bisitarien aunitzioa, euskara ikastera etorriko direnak, alegia. Eusko Jaurlaritzak «**Egonaldiak familia euskalduntan**» izendatzen ditu. Aurtan Zubietan, 42 lagun etorriko omen dira, etortzeko



KARMELE

aukera izanen dute hobe esanda, 3 hilabeteko plan-gintzaren barruko hilabete bakoitzan 14 postu eskeintzen baitira, 4 emakumez-

koentzat eta 10 «indiferenteak», hau da, berdin zaiela etxekoei emakumezkoa ala gizonezkoa etortzea.

Hori berdin baldin ba-

zaie ongi da, hain ongi ez dena zera da: Eusko Jaurlaritzak ez duela bizimoduaren kosto igoera errespetatzen eta iaz bezela ordaindu behar du. Batere normal ez zait iruditzen, guztia goruntz bait doa. Zubietarrak elkartu behar ko dira beharbada eta afera horretan behinpein indarra izanen lukete. Pentsa! Osotara eta uda guziko 257 postu aukera plazaratu dira eta horietatik 42 Zubietan. %17,7a. Hurbilena postu kopuruan Errexil dugu, 31rekin. Nekazarien esplotazioa berriz ere!!!

MariCruz
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - DONEZTEBE

LEITZA

Kultur Astea datozen egunetan eta Nafarroako Itzulia, 29an



ANTTON ERKIZIA

Hamalagarren urtez segiduan, Kultur Astea burutzeraz goaz Leitza (maiatzaren 16tik 24era). Joxemigel Elosegik egingako Leitzako maketa bikaina izanen da seguruenik aurtengo kultur astea-

ren "izarra" (3x2 metrotako "Leitza txiki" bat egin bait du Elosegik, inguruko mendi, erreka, zoko, bide, paraje eta tokiak bilduz, beren jatorrizko izenarekin).

Hortaz aparte, eta horrekin batera, musika, bertsolariak, hitzaldiak, Tolosako musika banda zaharra, herri kirolak, eta urteroko eskulanean erakusketa eta azken igandeko herri bazkaria.



Santa Engraziko Erromeria. Eguraldi zoragarri bat lagun, jendetza ikaragarria bildu zen Leitzaldetik eta Larraundik Santa Engrazira aurtun ere, apirilaren 26an.

Etxeren batetik, lau generazioak hantxe ikusi genituen, inguru honetako erromeriarik politenetik bat bait da Santa Engrazin egiten dena urtero.

Uitziko Udalak meza ondoren ateratzen duen gosare-txikia dastatuz, akordeoi pixko bat merezi zuen bilera harek. Ez zaizue iduritzen?

Lehenengo igandean berriz, Santa Kruzeko erromeria ospatzen zen.


Etapanagusiak Leitza izanen du helmuga

Aurtengo Nafarroako Itzuliak (Vuelta Ciclistak), Leitza izanen du etapanagusiaren helmuga, Aizan mendi gainean, maiatzaren 29an. Txirrindularientzat zaletasun eta indar haundia izan du herri honen historian, eta leitzarrak horrelako pesta baten gose omen zeudela aspalditik, esate digute, ez bait da nolana-

hikoa izanen egun hortako "mobida" Leitza. Etaba bera gogorra izanen da, eta bukaeran "Aizan" gainera igo beharrak halako "morboa" eransten dio probari. Otin-en hitzetan (eta gizon honek zerbait badaki hortaz), "etapa hori burutu eta irabazteko gai den gaztea, seguruenik profesionaletara pasatzeko prest legoke".



TAFALLA - AIZAN (140 km.)



Garbitasun lanetarako lanpostuen deialdia

On Bixenteri omenaldi hunkigarriak egin zitzaizkion eskolan eta Umore Ona elkartean

ESTEBAN AROZENA

Eskola, Herriko Etxea eta medikuaren kontsulta garbitzen zutenei kontratua bukatu zaienez, udalak deialdia luzatu du konkurtso bidez lan hauetaz arduratuko dena aukeratzeko. Interesatuak Herriko Etxera jo beharko dute baldintzen berri izateko. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita 15 eguneko epea zabalduko da eskeintza pliegoak aurkezteko.

□ **Gernika 92** Batzordeak Aste Santu inguruan burutu zuen gose greba zela eta asteazken, ostegun eta ostiral santu egunetan baraualdia egin zuten bi he-



Hiru egunez gose greban egon ziren Udaletxean

rritarrek Udaletxean. Aipaturiko erakundearekin bat egiteaz gain, espetxeratuak dauden euskal preso politikoei beraien elkartasuna adieraztea omen zen entzerronaren helburua.

□ **Umore ona** elkartek

4 ekintza burutuko ditu maiatzaren zehar. Hilaren 10ean Mendi Bizikletaren II. ibilaldia kurrutu zen; 17an Kros Herrikoien txanda, aurtan sari mamitsuekin gainera; azkenik, hasi berriak dira truk eta

mus txapelketak 22na bikotek parte hartuz.

□ **Iruñean** Marcelino Garderen omenez antolatutako albiste-sariketan herriko eskolako 5 ikasle hauek sariren bat jaso zuten Euskarazaintzak eratutako lehiaketa honetan: M^a Carmen Loiarde, Ainara Narbarte, Ainhoa Ansa, Olaia Lekuona eta Leire Goikoetxea.

□ **Apeza** eta irakaslea zen On Bixentek omenaldia jaso zuen irakasle eta ikasle guzien partetik. Umore Ona ere gainezka bete zen apirilaren 26an antolatutako Herri Bazkarian, Orreagara bidaltzen duten apez hau agurtzeko.

ARESO

Emakume ezkonduen afaria ospatu zen Pake Tokin

Bestalde, Guraso Elkarteak datorren urterako andereño bat gehiago eskatu du

JUANA MARI SAIZAR

Ohiturari jarraituz, larunbat santuan ospatu zen Pake Tokin urtetik urtera arrakasta haundiagoa duen. Aurtengoan 25 lagun zeuden. Afari ona eta prezioari dagokionez, oso merkea gainera. Gero, tartaren orduan, festa alaitzeko musika hasi zen Txingurri erantsundarrarekin goizeko 4ak arte. Urtero, pesta pasatu ondoren urtean behin egitea gutxi dela



Urteroko umore ona izan zen emakume ezkonduen afarian

pentsatzen da, maizago egin beharko litzatekeela.

Ea uda ondorean beste bat antolatzen dugun.

□ **Hurrengo** kurtsoan sei ume berri hasiko dira. Orain, bi andereño daude eta umeak bi taldetan banatzen dira, baina hurrengo kurtsoarako arazoa sortuko da dibisio honekin; ttikiaren taldean ume asko daude eta denak ongi atendituak egoteko nahiko lana andereñoarentzat. Horrela, egin diren obrekin leku arazorik ez dagoenez, Guraso Elkarteak hirugarren andereñoa eskatu du.

BAZTAN

Azken agurra eskeini zitzaion Mauricio Elizalderi

Txistulari famatuaren elizkizunetan Arizkun osoa eta hainbat pertsonai bildu ziren

JOSEBA

Apirilaren 17an hil ondoren azken agurra eskeini zitzaion bere sorterrian, hainbat urtetan txistularia izandako Mauricio Elizalde gizon umil bezain haundiari.

Hileta elizkizunetan, hainbat pertsonai bildu ziren, bertzeak bertze, Felix Iriarte, 40 urtez Mauricio-ekin atabalaria izandakoa, Euskal Herriko Txistulari elkartearen ordezkartza, Garmendia bertsolaria, Ansorena txistularia, Mariano Izeta euskaltzalea eta hainbat baztandar.

Elizaren barnekaldean ez zen "Agur jaunak"rik aditu, baina kanpokaldean Mauricioaren omenezko doinua entzun ahal izan zen.

Adiorik ez, Mauricio.

Udaberriko ferian...

giro ederra izan genuen, batez ere, nekazari eta tratante ugari bildu zirelako Elizondoko Merkatuzelaira eguraldi bikain eta eguzkitsuari esker. Azien-dak ere dexente izan ziren, 50 bat betabere, 3 dozena ahare eta zenbait zaldi.



Mauricio Elizalderi omentzera baztandar eta pertsonai ugari bildu zen



ONDIKOL



ONDIKOL

Zikoinak agertu dira lehen aldiz Elizondoko elizan. Bertan kabia egiten ere saiatu dira bainen azkenean, bizpahiru egun ahalaginetan aritu ondoren, badirudi ez dutela laketu. Batzuk diotenez, eguraldi aldaketa izan daiteke honen arrazoia.

Halere, aipagarriena Azpilkuetako Bizarnea baserriko «Rosa» abelgorria izan zen, baskulan pisatzerakoan 1.006 kilo eman bait

zitu. Baita ere kusteak izan ziren Gartzaingo Landakoa baserriko Maria Jexus Etxandik aurkeztutako hiru zekorrak.

W ttipi-flash

□ **Bertizen** Ingurugiro sailak finkatutako zaldi ibilaldiak antolatuko dira Uztaitetik aintzinerara Angel Rodriguez San Vicente, Industri, Komertzio eta Turismo kontseilariak adierazi duenez. Zerbitzu hau 5 urtez gestionatzeko konkurtsoa aterako omen da laister.

□ **Lantegi** berriak sortu eta laguntzak hartzeko deialdia hilabete batez luzatzea erabaki du Udalak. Modu honetara, interesatuek maiatzaren 25a bitarteko epea izanen dute beraien proiektuak Balleko Etxean aurkezteko.



ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



IPINGI

Opari eta zilarrezko bitxietan
behar duzun guzia

ZATOZ ETA IKUSI


Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

“Baztandarren Biltzarra - 92” iragarriko duen kartelaren lehiaketarako epea zabaldu da

1992ko ospakizunak iragarriko dituen kartelaren hautaketarako deialdia zabaldu du Baztandarren Biltzarra elkarteak, epea maiatzaren 25ean eguerdiko 12etan bukatuko delarik. Kartelak, gehienez, 50x70 zmtakoak izanen dira eta guztietan “Nafarroa Euskalerrria” Baztandarren Biltzarra 92 uztailaren 19an testoa txertatu behar da eta honako helbide hontara igorri: B.B. elkarte; posta kutxa 22, 31700 Elizondo.

Epaimahaia eta sariak

Epaimahaia, Mikel Iriarte eta Joseba Jauregi, Baztandarren Biltzarra elkarteak partaideak, Ana Larrui eta Benito Garai, baztandar margolariek eta Luis Garballo, Rafael Eskiroz eta Jose Antonio Cruz diseinugile profesionalak osatuko dute. Epaimahaiak saria maiatzaren 30ean ezagutzera emanen du, irabazleak oroigarri eskulturatxo bat eta 40.000 pezeta jasoko dituelarik.



Baztandarren Biltzarra Uztailaren 19an ospatuko da

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

IPARLA KIROLAK

- Kirolak orokorki
- Ekipamenduak eta trofeoak

Santiago 51 - Tfa: 58 05 85
ELIZONDO

ESTHER LORADENDA

Eskakizunak garaiz egitea gomendatzen dugu
Bergara auzoa, 580971-ARIZKUN



Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

ARROPA DENDA



CERVANTES HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

Eta orain, zure koloretako argazkiak
ORDU BATEZ ERREBELATUAK
ditugu



FOTO ZALDUA

KOMUNIOAK

Kanpaina berri honetan, eskeintzen dizkizugun oroigarrien artean baduzu non aukeratu.

Hartu ordua:

ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

EGUN HAUNDI BATETARAKO
OROITGARRI ON BAT



BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
- Haritz eta gerezi egurretan egindakoak

URDAZUBI

Hostal berria martxan paratu zen Aste Sainduan

Bertzalde, udaberriarekin batera kinto besten aldia ailegatu da

ALIZIA OLAIZOLA

Aipatu ginuen Beotxea jatetxean logelak egiten ari zirela turistei alokatzeko. Aste Sainduko prest ziren eta hostala ireki zuten. 8 logela ditu bakoitza bere bainugelarekin eta egongela bat telebistarekin. Aste Sainduan gela guztiak bete ziren, herriko bertze etxetan alokatzen dituzten logelak bezala. Aurten bertze urtetan baino turista gehiago izan dugu.

Kinto besten aldia

Apirilaren 1 leian ospa-

tu zuten 1944etik 1946rainokoek beraien kinto besta, zugarramurdiarrak eta urdazubiarrak izanik. Afaria Armuan egin zuten eta gero dantzaldia Joxeangelek. Maiatzaren 2an 1964an jaiotakoek ospatu beren kinto besta Armuan bazkari batekin, zugarramurdiarrak urdazubiarrak eta baztandarrak izanez gehienak. Bazkaldu ondoren, biziki animatuak zirenean dantzaldia izan zen Joxeangelek.

☐ Bildots jatea izan zen



Beotxean 8 logela egokitu dituzte turistentzat

apirilaren 26an Urdazubiko frontoian, 30 bat lagun

artean Genaro Etxenikek antolaturik.

IRAGARKI HAU 5.000 ETXETAN SARTU DA

ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO
ttipi - ttapa ERABILIZ GERO

COMERLAV

HEZETASUNA... komertzio, biltegi edo almazen, etxebizitza, garaje etabarretan...

DANTHERM lehorgailu berriei esker, hezetasuna kontrolatu eta kentzea garantizatua dago.

ETXE BERRIETAN

DANTHERM lehorgailuen bitartez, etxe berrietako paretak, zolak eta tetxoien lehorte prozesua nabarmenki azkartzen da, gero, pintatu, parketa jarri edota bertzelakoak egin ahal izateko.

Salmenta eta alogera
Joaquin Beunza 10, Tfnoa: 13 15 27
IRUÑEA

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa.: 45 00 14
BEINTZA - LABAIEN

molino

OINETAKOAK

Zure oina zabala edo problematikoa bada, neurria egindako oinetakoak baina hobeak aurkituko dituzu, moda modakoak.

P^a Colon 29, 943-611266
IRUN

B RADIO BIDASOA

* Eguraldi honekin, nola idortzen duzu zure arropa?

* Arropa lehorgailuetan aukera haundia

* 3 urtetako garantia

* «Finex» finantziazio berezia

Kantonberri 1
BERA ☎ 630377

EZKONTZAK

Francisco Fermin Rodriguez Lopez eta **M^a Aranzazu Etxepare Arretxea**, Lesakakoak, apirilaren 11an.

Juan Bautista Lasarte Lasarte eta **Maite Zia Lekunberri**, Leitzeta eta Iruñekoa, martxoaren 23an.

Juan Barriola Baraibar eta **Maria Artieda Cadena**, Leitzakoak, martxoaren 28an.

Manuel Sagastibeltza Beraza eta **Maite Forcada Huget**, Leitzeta eta Tuterakoa, apirilaren 25ean.

Ana Ester Gaztelumendi eta **Jabier Bertiz**, Sunbilla eta Elizondokoa, apirilaren 25ean.

JAIO TZAK

Andoni Salaberri Prados, Oro-notzen, martxoaren 10ean.

Julen Fagoaga Leiza, Iruritan, martxoaren 27an.

Julen Larregi Goñi, Elizondon, apirilaren 4ean.

Ana Isabel Sobrino Artazkoz, apirilaren 11an.

Lorea Onsalo Lezea, Areson, apirilaren 16an.

Oinatz Baraibar Estanga, Leitzan, martxoaren 19an.

Maria del Carmen Garcia Gomez, Leitzan, martxoaren 23an.

Eneko Etxeberria Gomez, Sunbillan, martxoaren 13an.

Oihana Mitxelena Legazkue, Sunbillan, martxoaren 14an.

Andoni Saldias Larraioitz, Urrotzen, apirilaren 25ean.

Maria Estanga Santesteban, Donezteben, apirilaren 6an.

HERIOTZAK

Martin Etxeberria Galarregi, Zugarramurdin, apirilaren 22an, 66. **Agustin Ayez**, Saran, apirilaren 9an, 68 urte.

Michel Dithurbide, Saran, apirilaren 14ean, 82 urte.

Ruperto Etxeberria Huizi, Goizuetan, apirilaren 25ean, 84 ur.

Celestina Etxenike Goienetxe, Urdazubin, apirilaren 7an, 87 urte.

Teresa Larunbe Orkoien, Elizondon, apirilaren 2an, 57 urte.

Juan Jose Maisterrena Garin, Amaiurren, apirilaren 4ean, 82 urte.

Celestina Etxenike Goienetxe, Elizondon, apirilaren 7an, 88 urte.

Isabel Ordoki Perotxena, Elizondon, apirilaren 10ean, 83 urte.

Maurizio Elizalde Etxeberria, Arizkunen, apirilaren 17an, 76 urte.

Martin Goñi Migeltorena, Arraiotzen, apirilaren 23an, 69 urte.

Eulogia Estanga, Areson, apirilaren 20an, 85 urte.

Asentxio Urkiola Zestau, Leitzan, apirilaren 2an, 26 urte.

Juan Tomas Zestau Arribillaga, Leitzan, apirilaren 6an, 81 urte.

Lorentxa Alduntzin Zabaleta, apirilaren 15ean, 53 urte.

Maritxu Erasun, Eratsunen, apirilaren 18an, 40 urte.

Oliva Bengoetxea, Eratsunen, apirilaren 21ean, 80 urte.



ITURENGO UDALA

Informazio gehiago izateko
deitu Iturengo Udaleko
450302 Tfnora.



AURTIZKO OSTATUAREN SUBASTA

AZALPENA: Aurtizko Herriko Ostatu subastara ateratzen da: Ostatu-jatetxea, pentsioa eta bizilekua.

IRAUPENA: 10 urtetarako kontratua sinatzen den egunetik hasita.

ESKEINTZAK AURKEZTEKO EPEA: Iturengo Herriko Etxean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarkia agertu eta 10 egunen buruan.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA: Ikus Udal-idazkaritzan.

FIDANTZA: Subastan parte hartu ahal izateko, 25.000 pzta. sartu beharko dira Doneztebeko Caja Rural-eko 000001.8 kontuan.

Zer gertatuko da Lesakako Laminacionesekin?

Bideragarritasun Planaren aurkezpenaren ondoren gauzak ez dira sobera argitu, baina AHV 3.624 langile guttiago izanen ditu 2000 urtean

Apirilaren hasieran aurkeztu zen Siderurgia Integralaren Bideragarritasun Plana, AHV eta Ensidesa “epe ertain eta luze batera egonkortasuna ziurtatuz, Europa mailan enpresa bideragarri bat” egiteko helburuarekin. Bitartean, 7.224tik 3.624 langile geldituko omen diranik gabe AHVn 1992 eta 2000. urtearen artean, Sestaoko 3 labe garaiak kendu eta euren ordeza “miniaceria” bat paratu ondoren. Gainontzeko gehiena espekulazioa da oraindik.


Hain zuzen, erabaki hau baita plan honetatik argi ateratzen den gauza: gaur egun, 2,3 milioi Tonako kapazitate instalatua eta 3.500 lanpostutik goiti sortzen dituzten 3 labe garaietatik, 900.000 Tonako kapazitate instalatua (Lesakako Laminategiak duten kapazitatea gutti goiti behiti) eta 500 langile bertzerik behar ez duen “miniaceria” batera pasatuko litzateke Sestaoko kabezera 1996 urterako. Bitartean,

orain dauden 3 labeetatik 2 itxi eta bertzea funtzionatzen utziko litzateke.

Kapazitatearen gutxitze honek eragin latza izanen du Laminaciones-en. Alde batetik kanpotik erosi beharra eta bertzetik, kalitate gutxiagoko produktua aterako dela “miniaceria”tik, honek txatarra bihurtzen baitu altzairu (orain zuzenean mineraletik egiten da altzairua). Honela, zenbait produktu egitea ezinezkoa izanen da Laminaciones-


en, produktu berriaren kalitate eskasagoa dela eta.

Gainera, miniaceriarekin batera, Lesakan dauden dekapatua eta trenak paratuko omen dituzte Bizkaia aldean. Gauza berdintsua gertatzen da Legasako perfiladorakin: Iruñean nabe berri bakar bat jartzeko ideia dago Legasako eta Perfrisako (Ensidesa) nabeak egiten duten lana elkartzeko. Beraz, Legasan pintura lerroa bakarrik geldituko zen.



Lanpostu murrizketa segurua

Segurutzat eman daitekena, langile murrizketa da, bai Sestaon eta bai Lesakan. Talde osoan 3.365 lanpostu desagertuko dira 1998 urtea bitartean eta 3.624 mende bukaera bitartean. Planaren arabera, lanuzteak “ez traumatikoak” izanen dira, hau da, ez da kontrato etenik eginen, jubilazio aintzineratua edo “baja incentivada”



Sestaoko kabezera ixtearen aurkako mobilizazio ugari izan dira azken hilabeteotan, Lesakan

direlakoak baizik. Zentzu honetan, 1.880 langile bildutuen «Laminaciones de Lesaka»n, 52 urtetik goitikoak seguraski jubilatuko dituztelaren zurrumurrua dabil, Sestaon hartuko diren neurriak hartzen badira behinpein.

Plana, sindikatu gehien ustez, nahiko azaletik eta globalki aurkeztu da, zehaztapen haundirik gabe. Honen arabera, 3.400 milioi pezetatuko inbertsioa egiten da Laminaciones-en, plan osoaren %2a hain zuzen. Lesaka eta Etxaba-

rriko «akabadorekin» zer gertatuko den azaltzen duen planaren osagarri bat ere ba omen dago oraindik aurkeztu gabe, beti ere gauzak garbi ez daudenean sortzen diren espekulazio mailan.

Dagoeneko plana mahaiaren gainean dago eta orain sindikatuekin egin beharreko negoziazioa burutzea gelditzen da, berrestrukturaketa zein baldintzetan eta ze plazotan finkatuko den jakiteko.

AITOR AROZENA

LAMINACIONESen ETORKIZUNA



EUSEBIO MITXEO

ELA

«Etorkizuna ez da txarra, inbertsioak eginez gero»

“Nahiz eta plana sobera argia ez den, guretzako Laminaciones-en etorkizuna, epe ertain batean ez da txarra, beti ere, inbertsioak bertan eginez gero. Beharrezko lehen-gai guztia Bilbon egitea ziurtatuz gero, orduan eta etorkizun hobe izanen du fabrikak. Zentzu honetan, «miniacería»z gain, bertze acería bat egingen denaren informazioa iritsi zaigu, horrela gaur egun dagoen produkziara ailegatu ahal izateko. Subentzioak, noski, beharrezkoak dira eta planean agertzen diren 3.400 milioietaz gain, Nafarroako Gobernuak ere «acabadora»k bultzatuko dituela dirudi. Etorkizunerako, makinak berritu eta langileria gaztetu behar da, jubilatuz aurreratua eta horrelakoak bilatuz”.



JULEN MITXELTOARENA

LAB

«Plana onartezina da, funtsik gabekoa baita»

“Bai teoria eta bai datuei dagokienez, guztiz interesatua da plana. Garbi aski dago, labe garaiak ixtea eta ordeztu «miniacería» jartzeko erabakia funtsik gabekoa dela, kalitatea eta prozesu guztia airean uzten baitu. Akabadorei buruz, datu zehazgabeak eta kontradiktorioak ez ezik, inolako baserik gabekoa dira. Alarik erran zuen hura, irailan akabadorei buruzko plangintza berezia aterako dela, alegia, orain hartzen du zentzua. Bertze sindikato gehienak ere, onartezinatzat hartu dute plangintza. Madriletan egindako mehatxuak eta «txantajea» ere ezin dira inolaz ere onartu, ez bada segituan negoziatzen, «miniacería» ere ez dutela paratuko erran bait dute”.

Martin Garde: “Kultura eta kirol aktibitateetarako diru partidak zuzentzea ez da zulora botatzea”

Halere, bere sailan aurtengorako aurrekontuak zehaztu gabe daude oraindik

Martin Garde, Baztango Udaleko Hezkuntza Saileko kontzejala dugu. Sail honen barne Kultur Zerbitzua —mendialdeko bakarra—, Euskara Zerbitzua eta Kirol Zerbitzua ditu bertzeak bertze. Azken honetan gainera, kontutan hartu beharra dago Baztan, Bortziriak, Leitzaran eta Malerrekarako kirol koordinatzailearen ardura ere bere esku dagoela. Bertzalde, azken bizpahiru urteotan sendotzen joan diren Zerbitzu horietaz gain, duela zenbait hilabetetik honat bertze bi zerbitzu ere jarri dira martxan; Haurtzaindegia eta Ludoteka. Dirudienez, biak ere arrakastatsuak suertatzen ari omen dira.



ttipi-ttapa. *Duela bizpahiru urtetik honat kontzejaliaren betekizunak osatzen joan dira. Momentu honetan zertan daude alor ezberdin hoiek?*

GARDE. Nere ardura-pekko sailean hiru zerbitzu antolatuta daude: Kirol Zerbitzua eta Kultur Zerbitzua duela hiru urtetik

honat eta azkeneko antolatu dena Euskara Zerbitzua izan da. Lehenengo biak honez gero sendotuak badaude ere, Euskara Zerbitzua ere ari da pixkanaka sendotzen. Gure asmoa zerbitzu hauek finkatzea da eta Nafarroako Gobernuaren laguntzak ere finkatzea lortzea. Bertzalde, Kultur

Zerbitzuari dagokionez, adibidez, lehenbizi egin duguna, antolatzen ziren aktibitateak herrietara zabaltzea izan da, batez ere udan, berdin herrietako bestak izan edo ez eta baita ere, euskarari presentzia haundiagoa ematea.

ttipi-ttapa. *Duela guti Baztango EKB sortu zen.*

Nolakoa da Udala eta Balleko herri-erakundeekiko harremana? Behar adina elkar hartuak al daude?

GARDE. Kultur Zerbitzuak Baztango Udalak antolatzen dituen kultur aktibitateen koordinazioa eramaki du... Balleko Etxetik ateratzen direnak. EKBk, bere helburuetan adierazi duenez, Kultur munduko talde guzien koordinakundea izan nahi du. Sortu berria da eta bere emaitzak ikusi behar ditugu. Momentu honetan urteko kultur programazioa zehazten ari gara. Horretarako herri guzietako alkateei eskatu egin diegu pentsatuak dituzten aktibitateen berriemaitea eta guzi horrekin, maiatzatik eguberriak bitarteko programa finkatzea. Beraz, argi dago badagoela harremanik Udala eta bertze herri erakundeen artean.

ttipi-ttapa. *Gaiaz aldatuz, berriki hautatua izan da Baztan, Bortziriak, Leitzarar eta Malerrekarako Kirol Koordinatzaile berria. Zertan dago zerbitzua orain?*

GARDE. Lehendik lanpostu horretarako hautatua izan zen bat bainan arazo batzuk izan ziren eta berriro egin behar izan genuen deialdia. Momentu honetan, gainera, zenbait herri ttikik beraiei dagokien diru aportazioa zerbitzuari ordaintzen ez diotela eta subentzioak erretentuta ditugu. Bertze herrietako alkateekin bilera bat egin



Inguruotako udalek, ttikienak gehienbat, aurrekontuak egiterakoan kultura eta kiroltarako partidaren bat destinatzerakoan dirua botatzea bezala ikusten dute zoritxarrez"

nahi dugu guzia argitzeko eta bidenabar programazio berria eta 20 milioiko aurrekontua aurkezteko eta gero Nafarroako Gobernuari ere presentatzeko.

ttipi-ttapa. *Bainan Bortzirietan eta Malerrekan momentu honetan ez dago Kirol Koordinatzailerik...?*

GARDE. Bai, halaxe da. Bortzirietan badirudi badaudela problemak diru hori Club-ei eman osorik ala espartzimenduko kirolentzat ere zerbait zuzendu edo ez erabakitzerakoan. Malerrekan, berriz, egin nahi duten Mankomunitatea osatu arte badirudi postu hori ez dela estaliko.

ttipi-ttapa. *Azkenik, udal-administrazioa euskalduntzeko programa martxan dago. Nola ari da garatzen?*

GARDE. Alde batetik udal langile guziei gonbi-

datu egin genien bakoitzak behar zuen ikastaroan sartzeko eta horretan ari dira. Inprimaki ofizial guziak euskaraz ere agertzea nahi dugu eta guziarekin, euskararen presentzia udal mailan segurtatu. Dena dela, oraindik lan handia dago egiteko, bai administrazio maila, zein ikastetxe mailan nola karrika mailan ere.

ttipi-ttapa. *Udal langileen euskalduntzea dela eta. Plazorik jarri al duzue?*

GARDE. Langile fijoetan ezin dugu plazorik jarri. Hori bai, berri bat hartu beharko bagenu, euskalduna beharko luke izan. Halere, langile gehienak euskaldunak dira eta euskaraz hitzegiteko ere badi-ra... orai idatzi, hagitz guti.

Testua: J.M. IRIGOIEN
Argazkiak: K. TOLOSA

Martxan dagoeneko XIII. Laxoa Txapelketa

Ekainaren 28a bitarte jokatu dira parte hartuko duten zortzi talderen arteko partiduak, finala Irurritako Plazan jokatu delarik

Apirilaren 23an aurkeztu zuen ofizialki Laxoa Elkartek aurtengoarekin XIIIgarrena izanen den edizioa Irurritako Oinazturre Elkartean.

Zortzi talde izanen dira edizio honetan parte hartuko dutenak; Arraiotz, Donamaria, Irurita A eta B, Oitz A eta B eta azkenik, Doneztebe A eta B. Zortzi talde hauek bi multzotan banatuko dira eta lehen fasea liga sisteman jokatu dute eta eguraldiak posible egiten badu, maiatzaren 24an bukatuko da lehen fase hau. Bi multzotako lehen klasifikatuak, ekainaren 14 eta 21ean jokatu dituzte erdifinalak eta finala ekainaren 28an jokatu da Irurritako Plazan.

Aintzineko 12 edizioetan, txapelketaren finalak 6 pilota plazetan jokatu dira (Elizondo, Irurita, Arraiotz, Doneztebe, Oitz eta Donamaria), aurtengoan Iruritan eta datorren urtean Donezteben egingen da. Baita ere, exhibizioak eta Baztan-Errekako jubenil mailako txapelketa jokatu dira uda honetan.

Laxoa elkartek, iaz dirulaguntzak eman zituzten erakundeak eskertu zituen, Nafarroako gobernua, federazioa eta kirol koordinatzaileak, bertzeak bertze.



Amaiur, Sunbilla eta Labaien Nafarroako arpana txapeldunak suertatu ziren

Apirilaren 19an burutu ziren Berako Eztegarra frontoian Nafarroako arpana txapelketak, gizonetzko, emakumezko eta sub-20 mailatan. 850 pertsona inguru bildu ziren eta ikuskizuna bikaina izan zen, batzutan emozio haundiko bukaerak izan bait ziren.

Sailkapenak

Gizonezkoak, senior:

- 1.- Jose Mari Iriarte eta Jose Mari Mujika (Amiur); 14' 28".
- 2.- Jose eta Francisco Leiza (Lesaka); 14' 37".

- 3.- Santiago Inda eta Juan Indakoetxea (Sunbilla); 14' 45".

Emakumezkoak:

- 1.- Juana Bazterrika eta Dolores Larralde (Sunbilla); 3' 39".
- 2.- Ana Gartxitorena eta Mari Loren Eugi (Basaburua-Baztan); 3' 50".
- 3.- Ana Mujika eta Maribel Arzubia (Lesaka); 4' 07".

Gizonezkoak, sub-20:

- 1.- Miguel Angel eta Joxe Etxeberria (Labaien); 3'.
- 2.- Alberto Larraioz eta

Eduardo Morrondo (Ultzama); 3' 18".

- 3.- Alberto Otxoteko eta Joseba Arzubia (Lesaka); 3' 19".

Labaiengo Aizkora txapelketa

Hilaren 7an, 12,30etatik aurrera jokatu da Labaiengo aizkora txapelketa bikoteka. 3 bikotek hartu dute parte: Marcos-Jose Luis Telletxea; Jesus Etxeberria-Pello Telletxea eta Jose Jacinto-Javier Etxekolanea. Egin beharreko lana, lau 60 ontzako eta zortzi 44 ontzakoak.

HERRI KIROLAK

Nafarroako Kirol Jokoen finaletan Basaburua eta Arantza nagusitu ziren



Infantil eta kadete mailako II Herri Kirol txapelketaren finalak jokatu ziren Irurtzunen Nafarroako gobernua Herri kirol Federazioaren bidez antolatzen dituen Kirol Jokoen barnean. Aurtengoan, liga sisteman jokatu dira kanporaketak, horrela taldeak elkar ezagutzeko eta hobe prestatzeko aukera izan dutelarik, kirol hau taldea zuten herri guzietara eramateaz gain.

Izena emana zuten 22 taldeetatik Basaburua Baztan, Sunbilla, Labaien, Irurtzun, Andra Mari ikastola (Etxarri Aranaz), Ultzama eta Larraun izan ziren finalerako txartela eskuratu zutenak.

Sari banaketan, Jose Luis Diez Kiroletarako Zuzendari Orokorra izan zen.

Sailkapenak

Kadeteak, konbinatua:

- 1.- Basaburua-Baztan.
- 2.- Labaien.
- 3.- Sunbilla.
- 4.- Irurtzun
- 5.- Andra Mari Ikast.

Kadeteak, sokatira:

- 1.- Basaburua-Baztan.
- 2.- Sunbilla.
- 3.- Bera.
- 4.- Ultzama
- 5.- Andra Mari.

Infantilak, konbinatua:

- 1.- Arantza.
- 2.- Irurtzun.
- 3.- Sunbilla
- 4.- Larraun.
- 5.- Bera.
- 6.- Andra Mari

Infantilak, sokatira:

- 1.- Arantza.
- 2.- Bera.
- 3.- Larraun.
- 4.- Ultzama.
- 5.- Andra Mari.



Maiatzaren 16 eta 31an, 640 kilotako sokatira kanporaketak

Lesakan eta Iruritan jokatuko dira

Maiatzaren 16an eta 31an burutuko dira Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatzen duen 640 kilotako sokatira txapelketaren kanporaketak. Lehenengoa Lesakako frontoian egingen da arratsaldeko 7,30etatik aintzinerara eta bertan parte hartuko duten taldeak Sunbilla, Ultzama,

Arraiatz, Arizkun, Arantza eta Gartzain izanen dira. Iruritan berriz, arratsaldeko 6etan arituko direnak Bera, Amaur, Basaburua, Narbarte, Lesaka eta Berriozar izanen dira. 100 kiloko harrijasotzaile txapelketa ere bertan jokatu da. Sokatira finala, ekainaren 14an Sunbilla izanen da.

Hamabostaldiko jokaldiak



Laxoa Elkarteak.

Aintzineko kirol hau berreskuratzeko ahaleginak egiten segitzen dute elkarte honetako kideek, aurtengoan hamairugarren txapelketa antolatuz. Zortzi taldek parte hartuko dute aurtan.



Eguraldiaren gorabeherak.

Pasiatzera edo mendira kriston eguzkiarekin ateri eta konturatu orduko euri edo kazkabarra eraso batek goitik behitiraino bustitzen zaitu. Aurtan aterkiekin ondartzara.

MERKATU TTIKIA

▼ Etxebizitzak

• **Lesakan** etxea alokatuko nuke, ahal bada gero erosteko asmoarekin. 634046 ☎. (Carlos).

• **Malerreka** edo Baztan aldean etxe bat alokatuko genuke. 943 - 526380 ☎ (Javi).

• **Beran** edo inguruetan alkilatzeke pisua behar da. ☎ 631136 (Elena).

▼ Lana

• **Edadeko** amona bat zaintzeko (gau eta egunez) igandeak nahi izanez gero libre, emakume bat nahiko genuke. ☎ 943-352358.

• **18-19** urtetik gorako neska interna haur bat zaintzeko behar da Hondarribian. ☎ 943-643605.

• **Beran**, adineko emakume bat zaintzeko emakume bat behar da lehenbaitlehen. ☎ 630489.

• **Neska** bat interna bezala lan egiteko behar da. ☎ 943-631427 (Nekane, goizeko 10etatik 1etara).

▼ Denetarik

• **Ekipoak** alokatzen dira udalentzat, bertsola-

rientzat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara deitu. 631059.

• **Lesakan** lokal bat traspasatzen da. Deitu 10tik 1etara eta 5etik 8etara 637410 ☎.

• **Grabatu** dituzun bi-deotan musika, tituloak eta efekto digitalak paratuko dizkizut. Baita ere bideo montajeak eta bideoak editatzen ditut. Prezio oso onean 450463 ☎. (Mikel).

▼ Salerosketak

• **Mostradorea** kajoiekin eta erakusteko bitrina-ekin. 63 04 19 ☎.

• **700** arkazi pikete salgai. Deitu 635218 ☎.

• **Behia** izteko makina salgai, modu onean. Deitu 63 41 33 ☎.

• **Batidora** eta azukre errota salgai. 510072 ☎.

• **Mendian** ibiltzeko R-5 salgai. ☎ 450957.

• **Bulego-mahaittoa**, ahal bada kajoiduna erosiko genuke. ☎ 451555.

• **Pirenaika** arrazako zezengaiak salgai. 453207.

• **9 berogailu** (radiadore) salgai. ☎ 580373.

• **Artzai** aleman zakur-

kumeak salgai. ☎ 450348.

• **Teila usatua** prezio onean salgai. ☎ 634049.

• **600 m²ko** eremua herri-gunean eta edifikablea salgai Beran. ☎ 630029 eta 630356 (10etatik 12etara).

• **Diskoak** salgai, Herztainak (zuzenean, amets pref., La Polla (Ellos dicen, Los Jubilados) Tijuana. ☎ 453042 (Toribio).

• **Kamioi** bat lana eta guzti salgai. 452220 ☎.

• **Biurtetako** behia bere aretzearekin salgai. 634034 ☎.

• **Etxe zakur** gazte bat salgai. 451597 ☎.

• **Suzuki 125** motoa, 89an erositakoa salgai. 635039 ☎.

• **Seat 600** salgai, VI-A matrikula eta ITV pasatua. 599152 ☎ (arratsetan).

• **Yamaha YZ 250 "91"** motocross motoa salgai 425.000 pztan. Egoera onean. 635157 ☎ (Jon).

▼ Harremanak

• **Leitzako** Julian Zabaletari zorionak urtebetetzean zure emazte eta sendi guztiak eskeinuta maitasun haundiz.

• **Elizondoko** Jabier Biartolari: maiatzaren 3an 9 urte betetzeagatik zorionak Urdazubiko lehengusu, osaba-izeben partez.

• **Leitzako** M^a Jose, Iñaki eta M^a Carmeneri zorionak etxeko familiaren partetik.

• **Arantzako** Ainara-rentzat, apirilaren 1ean urteak bete zituela eta zorionak lagun baten partez.

• **Leitzako** Pilarentzat, zorionak zure urtebetetzean ondo pasa dezazun espero dugu. Juanjo, Juana, Goretti eta Sara.

• **Leitzako** Asier eta Nerea Gartziari: zorionik beroenak guraso eta aitona-amonen partetik.

• **Zorionak** Anabel eta Cristina. Noiz hartu behar dugu txanpaina zuen urtebetetzea ospatuz? Goizuetako pendonak.

• **Leitzako** Aloñari: zorionak eta lehen bezain jator etairaun dezazula. Mila.

• **Leitzako** M^a Jose Otegiri, zorionak zure urtebetetzean, ia horren polit eta jator segitzen duzun.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: _____

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK _____

HELBIDEA _____

HERRIA _____ Tfnoa: _____

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188



ALMACENES ETXANIZ, S.A.

Lesakako
Iturria anaiak


Juan Arana, 3
Tfnoa: (943) 61 17 67
IRUN

ESKUALDEKO AUKERARIK HAUNDIENA GRES ETA AZULEJOETAN
AZKEN MODELOAK ERA GUZIETAKO PREZIOTAN

BERA

BIDASOA 60 ☎ 948/631443

ERAKUSKETA BERRIA



MOBLEAK METS

BIDASOA Karrika 45, ☎ 948 / 630537 LOGELAK, EGONGELAK, MAHAIAK, AULKIAK, Etab...



SUKALDEAK



BAINUAK



PARETAN SARTZEKO
ARMAIRUAK



CRISTALERIA VELATE



ESKEINTZA APARTA ARMARIOETAKO ISPILUDUN ATE KORREDERETAN

ESKATU PRESUPUESTOA KONPROMISORIK GABE

DELEGAZIOAK:

ELIZONDO

Pedro Axular karrika, 1

Tfnoa: 58 08 25

IRUÑEA

Villava etorbidea 12 Behea

Tfnoa: 13 20 21

DONEZTEBE

Mercaderes 5

Tfnoa: 45 09 91

Euskara Aukeratu Geroa Eskuratu



Matrikula
itzazue
Euskaraz



BAZTAN / BORTZIRIAK / MALERREKA / LEITZA-GOIZUETAKO EUSKARA ZERBITZUAK